**2023KO UZTAILAREN 20AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 20 DE JULIO DE 2023**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea

**ARETOA**: Batzar Aretoa

**EGUNA**: Hogeia

**HILABETEA**: Uztaila.

**URTEA**: Bi mila eta hogeitahiru

**HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seietan

**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Apartekoa

**DEIALDIA**: Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain

**LOCAL**: Salón de Plenos

**DIA**: Veinte.

**MES:** Julio.

**AÑO**: Dos mil veintitrés

**HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas.

**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.

**CONVOCATORIA**: Primera.

**NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17)

**UDALBURUA / PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK / REUNIDOS/AS**:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**

- ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Idoia Noble interpretariak

En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa y la intérprete Idoia Noble.

**1.- AURREKO AKTA**. 2023ko uztailaren 6ko aktaren onespena.

Ezagutzera eman ondoren 2023ko uztailaren 6ko akta, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación de las actas del 17 y del 26 de junio.

Tras dar cuenta del acta del 6 de julio de 2023, al no proponerse modificaciones, se aprueba por unanimidad.

**2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

- BEASAINGO ONDARRE 29. EREMUKO E LURZATIARAREN XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA**.** 2023AEST0001

Ezagutzera eman da, 2023-07-13ko Lurralde Batzordeko proposamena, hau da:

*AURREKARIAK*

*I.- 2023eko maiatzaren 10ean, Alkateak hasierako onespena eman zion aipatutako Xehetasun Azterlanari.*

*II.- 1/2006 Foru Dekretuaren 94.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako Xehetasun Azterlana digital formatuan igorri zen Foru Aldundiko Errepide Departamentura, aginduzko txostena emateko eskaera eginez.*

*Aldeko txotenak, erregistro elektronikoan sarrera izan zuen, 2023ko maiatzaren 26an.*

*III.- Ebazpena sustatzaileari jakinarazi zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen hogei laneguneko epean ondorengo egunkari eta aldizkari ofizialean iragarkiak argitaratuz: Berria, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2023-05-12an, 2023-05-16an eta 2023-05-19an, hurrenez hurren.*

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO**:

- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA E EN EL ÁREA 29 ONDARRE DE BEASAIN.

Se da a conocer la propuesta de la Comisión de Territorio del 13-07-2023.

*ANTECEDENTES*

*I.- La Alcaldesa con fecha 10 de mayo de 2023, resolvió aprobar inicialmente el citado Estudio de Detalle.*

*II.- De conformidad con lo señalado en el art. 94,2 del Decreto Foral 1/2006, se remitió en formato digital el citado Estudio de Detalle al Departamento de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa, solicitando la emisión del preceptivo informe.*

*El informe, de carácter favorable, tuvo entrada en el registro electrónico el 26 de mayo de 2023*

*III.- La resolución se notificó al promotor y el expediente se sometió a información pública por espacio de veinte días hábiles, publicándose los anuncios en periódicos y boletín: Berria, Diario Vasco y Boletín Oficial de Gipuzkoa, el 12-05-2023, 16-05-2023 y 19-05-2023, respectivamente.*

*Aipatutako jendaurreko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*Legeri aplikagarria xehetasun hauetan aurreikusten da:*

*- Hirigintza Plangintzako Erregelamenduaren 65., 66. eta 140. Artikuluak.*

*- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73., 74. eta 98. artikuluak.*

*- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22, 2c), artikulua.*

*Horren ondorioz, Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari gehiengo soilarekin onartzeko nahikoa den ondorengo erabaki-proposamena egiten dio.*

*Lehenik. Beasaingo Ondarre 29 areako E lursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.*

*Bigarren. Erabaki honen berri sustatzaileari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*"

*En ese plazo, no se presentó ninguna alegación.*

*FUNDAMENTOS JURIDICOS*

*La legislación aplicable viene recogida en los siguientes preceptos:*

*- Arts. 65, 66 y 140 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.*

*- Artículos 73, 74 y 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.*

*- Artículo 22, 2c) de la Ley de Bases de Régimen Local.*

*En consecuencia la comisión de Territorio somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo para cuya aprobación hace falta el quorum de la mayoría simple:*

*Primero. Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela E del área, 29 Ondarre de Beasain.*

*Segundo. Dar traslado del presente acuerdo al promotor, así como publicarlo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa."*

- BEASAINGO ONDARRE 29. EREMUKO D LURZATIAREN XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA**.** 2023AEST0002

Ezagutzera eman da, 2023-07-13ko Lurralde Batzordeko proposamena, hau da:

"*AURREKARIAK*

*I.- 2023eko ekainaren 13an, Alkateak hasierako onespena eman zion aipatutako Xehetasun Azterlanari.*

*II.- 1/2006 Foru Dekretuaren 94.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako Xehetasun Azterlana digital formatuan igorri zen Foru Aldundiko Errepide Departamentura, aginduzko txostena emateko eskaera eginez.*

*Aldeko txotenak, erregistro elektronikoan sarrera izan zuen, 2023ko ekainaren 30ean.*

APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA D EN EL ÁREA 29 ONDARRE DE BEASAIN.

Se da a conocer la propuesta de la Comisión de Territorio del 13-07-2023

*"ANTECEDENTES*

*I.- La Alcaldesa con fecha 13 de junio de 2023, resolvió aprobar inicialmente el citado Estudio de Detalle.*

*II.- De conformidad con lo señalado en el art. 94,2 del Decreto Foral 1/2006, se remitió en formato digital el citado Estudio de Detalle al Departamento de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa, solicitando la emisión del preceptivo informe.*

*El informe, de carácter favorable, tuvo entrada en el registro electrónico el 30 de junio de 2023*

*III.- Ebazpena sustatzaileari jakinarazi zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen hogei laneguneko epean ondorengo egunkari eta aldizkari ofizialean iragarkiak argitaratuz: Berria, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2023-06-15ean, 2023-65-15ean eta 2023-06-20an, hurrenez hurren.*

*Aipatutako jendaurreko epean (2023-07-18an amaitu zen), ez da inolako alegaziorik aurkeztu.*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*Legeri aplikagarria xehetasun hauetan aurreikusten da:*

*- Hirigintza Plangintzako Erregelamenduaren 65., 66. eta 140. Artikuluak.*

*- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73., 74. eta 98. artikuluak.*

*- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22, 2c), artikulua.*

*Horren ondorioz, Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari gehiengo soilarekin onartzeko nahikoa den ondorengo erabaki-proposamena egiten dio.*

*Lehenik. Beasaingo Ondarre 29 areako D lursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.*

*Bigarren. Erabaki honen berri sustatzaileari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."*

*III.- La resolución se notificó al promotor y el expediente se sometió a información pública por espacio de veinte días hábiles, publicándose los anuncios en periódicos y boletín: Berria, Diario Vasco y Boletín Oficial de Gipuzkoa, el 15-06-2023, 15-06-2023 y 20-06-2023, respectivamente.*

*En ese plazo (finalizó el 18-07-2023), no se ha presentado ninguna alegación.*

*FUNDAMENTOS JURIDICOS*

*La legislación aplicable viene recogida en los siguientes preceptos:*

*- Arts. 65, 66 y 140 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.*

*- Artículos 73, 74 y 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.*

*- Artículo 22, 2c) de la Ley de Bases de Régimen Local.*

*En consecuencia la comisión de Territorio somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo para cuya aprobación hace falta el quorum de la mayoría simple:*

*Primero. Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela D del área, 29 Ondarre de Beasain.*

*Segundo. Dar traslado del presente acuerdo al promotor, así como publicarlo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bi proposamen ezberdin dira baina eremu berdinean eta egokitze lanak egiteko aurrera eraman behar den izapide urbanistikoa burutzean datza. Hain zuzen ere, aipatutako Xehetasun Azterlanen behin betiko onespena ematea.

Alde batetik "Industrias Electromecánicas GH" enpresak, produktu kimikoak biltegiratzeko egokitu behar ditu bere instalazioak eta bestetik "Talleres Mecánicos Arri" enpresak eraiki nahi du biltegi inteligente bat. Horretarako, esan bezala, Xehetasun Azterlanen behin betiko onespena ematea dagokio, proposamenetan adierazitako aurrekariek kontuan izanda.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Se trata de dos propuestas diferentes, pero en el mismo ámbito y consisten en la tramitación urbanística que hay que llevar a cabo para la ejecución de las obras de acondicionamiento. En concreto, la aprobación definitiva de los citados Estudios de Detalle.

Por un lado, "Industrias Electromecánicas GH" debe adaptar sus instalaciones para el almacenamiento de productos químicos y por otro, "Talleres Mecánicos Arri" quiere construir un almacén inteligente. A tal efecto, tal y como se ha señalado, hay que aprobar definitivamente los Estudios de Detalle, teniendo en cuenta los antecedentes señalados en las propuestas.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ados gaude baina jaso ditgun dokumentuak erdara hutsean jaso ditugu. Aurreko legealdian ere aipatu genuen. Ahal den neurrian, behintzat, euskaraz ere jaso nahiko genuke. Gero egingo dugun aitorpenarekin lotuta doa.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Kasu honetan gertatzen dena da, sustatzaile pribatuak direla dokumentuak aurkeztu dituztenak. Ez da guk administrazio bezala eskatutakoa. Legez ez dut uste horrelakorik eskatu dezakegunik, baina egia da bidea egin behar dugula geroz eta gehiago administrazio euskaldunagoa eduki dezagun eta gure lan hizkuntza euskara izan dadin.

Beste guztiek adostasuna azaldu dute proposamenekiko.

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Estamos de acuerdo, pero la documentación que hemos recibido está en castellano. Ya lo comentamos en la pasada legislatura. En la medida de lo posible, nos gustaría recibirla también en euskera. Va relacionado con la declaración que haremos después. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Lo que ocurre en este caso es que son promotores privados quienes han presentado la documentación. No es algo que nosotros pedimos como administración. Por ley no creo que podamos exigirlo, pero es cierto que tenemos que recorrer el camino para que cada vez tengamos una administración más euskaldun y nuestra lengua de trabajo sea el euskera.

Todos los demás han mostrado su conformidad con las propuestas.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu dira bi proposamenak.

En consecuencia, tras realizar la votación se han aprobado ambas propuestas por unanimidad.

**3.- ALKATEAREN PROPOSAMENA**

GOIEKIKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAN PARTE HARTZEKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA. 2023IDBO0010

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aurreko bileran gai hau onartzeke geratu zen. GOIEKI sortu zenetik duen espirituari jarraituz, bertan eskualdean dauden talde politiko guztiak, Administrazio Kontseiluan presentzia eta ordezkaritza izatea da helburu. Horren arabera beste herriekin adostutakoa izan da, PODEMOSeko ordezkaria, Ordiziako zinegotzia izango da eta orduan proposatzen duguna da Beasaingo kasurako, gure hiru ordezkaritzak gainerako hiru talde politikoen esku uztea. Beraz, proposamena ondorengoa da:

“*Gaia: GOIEKIko Administrazio Kontseiluan parte hartzeko ordezkariak izendatzea:*

**3.- PROPUESTA DE ALCALDÍA**

NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES EN EL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE GOIEKI

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "En la anterior reunión este asunto quedó pendiente de aprobación. Desde la creación de GOIEKI el criterio ha sido que el Consejo de Administración cuente con presencia y representación de todos los grupos políticos presentes en la comarca. Por lo tanto, se ha consensuado con el resto de pueblos, que el representante de PODEMOS sea el concejal de Ordizia, y lo que proponemos entonces para el caso de Beasain es que nuestras tres delegaciones pasen a manos de los otros tres grupos políticos. Por tanto, la propuesta es la siguiente:

*“Gaia: GOIEKIko Administrazio Kontseiluan parte hartzeko ordezkariak izendatzea:*

*Udalbatza Osoari proposatzen zaio, GOIEKIko Administrazio Kontseiluan parte hartzeko ondorengo ordezkariak izendatzea:*

*- LEIRE ARTOLA UGALDE (EAJ-PNV)*

*- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR (BEASAINGO EH BILDU)*

*- EVA ALVAREZ ATANES (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)*"

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

*Udalbatza Osoari proposatzen zaio, GOIEKIko Administrazio Kontseiluan parte hartzeko ondorengo ordezkariak izendatzea:*

*- LEIRE ARTOLA UGALDE (EAJ-PNV)*

*- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR (BEASAINGO EH BILDU)*

*- EVA ALVAREZ ATANES (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)*

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia, tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

## 4.- ERAKUNDE AITORPENA

EAJ-PNV eta Beasaingo EH Bildu udal taldeek aurkezten duen erakunde-adierazpena: Espainiako Auzitegi Konstituzionalak emandako Sententzia, udalei euskara hutsez aritzeko aukera zabaltzen dien 2016ko Udalen Legearen aurka.

Alkate andreak (EAJ-PNV) erakunde-adierazpenaren zati hau irakurri du:

"***Gaia: Espainiako Auzitegi Konstituzionalak emandako Sententzia, udalei euskara hutsez aritzeko aukera zabaltzen dien 2016ko Udalen Legearen aurka.***

*"Hizkuntza eskubideen aurkako epaiaren aurrean"*

*Euskalgintzako eragileekin batera Udal honetako EAJ-PNVko hautetsiok, zera adierazi nahi dugu:*

*Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezetsiz, emandako epaiak eragin digun kezka larriak ekarri gaitu idatzi hau aurkeztea.*

*Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztopoa jartzea delako, helburu*

## 4.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Declaración institucional presentada por los grupos municipales EAJ-PNV y Beasaingo EH Bildu: Sentencia del Tribunal Constitucional contra la Ley Municipal de 2016 que abre la posibilidad a los ayuntamientos funcionar exclusivamente en euskera.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV) da lectura a esta parte de la declaración institucional:

***"Asunto: Sentencia del Tribunal Constitucional de España contra la Ley Municipal de 2016 que permite a los municipios funcionar exclusivamente en euskera.***

*"Ante una sentencia contraria a los derechos lingüísticos"*

*Los electos de EAJ-PNV de este Ayuntamiento, junto con los agentes de Euskalgintza, manifestamos lo siguiente:*

*Nos ha traído a presentar este escrito, la grave preocupación que nos ha suscitado la sentencia del Tribunal Constitucional español contra la Ley Municipal, desestimando la posibilidad de que los ayuntamientos actúen exclusivamente en euskera.*

*Nos parece preocupante y grave porque la sentencia supone poner freno al proceso de*

*horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu. Bide batez esan, herritar guztien hizkuntz eskubideak bermatzen dituzten hizkuntza-politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2 artikuluak berariaz jasotzen baitu berme hori.*

*Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du.*"

*normalización y revitalización del euskera, ya que limita totalmente las políticas lingüísticas que se llevan a cabo desde los ayuntamientos a favor de este objetivo. Por cierto, se trata de políticas lingüísticas que garantizan los derechos lingüísticos de todos los ciudadanos, garantía que expresamente recoge el artículo 6.2 de la Ley Municipal rechazada.*

*En definitiva, esta sentencia desprecia al euskera y a los vascoparlantes, impidiendo la entrada en vigor de políticas lingüísticas que puedan hacer frente a los grandes desafíos que el euskera tiene de cara al futuro en el camino de la normalización y la revitalización."*

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu), erakunde-adierazpenaren zati hau irakurri du:

"*Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain baliogabetutako Udal Legea. Era berean, azken Inkesta Soziolinguistikoak argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hori euskararen biziberritzearen aurkakoa ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan. Erabakimen horren defentsan hona hemen ehunka alkate eta udal ordezkariren presentzia.*

*Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Epai honen ondoren, salaketa are eta irmoago egiten dugu: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde*."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) lee la siguiente parte de la declaración institucional:

*"El Parlamento Vasco aprobó por amplio consenso la ahora derogada Ley Municipal. Asimismo, la última Encuesta Sociolingüística ha puesto de manifiesto que una amplia mayoría de la sociedad apoya las políticas orientadas a la normalización del euskera. Por tanto, esta sentencia no sólo es contraria a la revitalización del euskera, sino a un gran consenso social. En definitiva, cuestiona la capacidad de decisión de la ciudadanía y de los ayuntamientos. He aquí la presencia de cientos de alcaldes y representantes municipales, en defensa de esta capacidad de decisión.*

*Entendemos que esta sentencia forma parte de una ataque judicial más amplio, que se sitúa en un marco reaccionario contra las lenguas minoritarias. Tras esta sentencia, presentamos nuestra denuncia aún más firme: contra este ataque, pero sobre todo a favor de la normalización y revitalización del euskera."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek ondorengo iritziak aurkeztu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros estamos en contra. No nos vamos a adherir a esta declaración institucional porque, respetamos las decisiones judiciales, porque los socialistas vascos votamos en contra de esta ley porque en su día también se advirtió que algunos artículos de esta ley podrían ser anticonstitucionales. Esta sentencia lo confirma porque dice que la documentación no tiene que ser redactada sólo en euskera. Los socialistas siempre hemos estado a favor de la defensa de los derechos lingüísticos. La ciudadanía tiene derecho a dirigirse a la Administración en la lengua que libremente elija sin ningún tipo de imposición. El aceptar que toda la documentación de una Institución se pueda redactar en una sóla lengua supone ir en contra de los derechos lingüísticos. Los jueces interpretan las leyes y nosotros tenemos que

llevar a cabo un Plan para poder mejorar el uso del euskera, pero esta sentencia no ataca esta posibilidad."

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Nik honen inguruan gogoeta sakona egin dut eta alde batetik dut bihotza eta bestetik burua. Pena handiz hartu dut hau. Pertsonalki ez zait batere gustatzen baina egia da urte batzuetatik hona datorren jokaera ikusita, pixka bat aurreikustekoa zela. Guk uste dugu testuingurua garrantzitsua dela. 2012-2016 arteko legealdian, Carlos Urquijo jauna, Gobernuaren delegatua zela, udal pila bat auzietara eraman zituen euskaraz egiteagatik. Horri aurrera egiteko Udal legea ateratzea lortu zen 2016. Atera bezain laster Estatuaren Abokatuak (Macarena Olona anderea), iragarri zuen konstituzioaren aurkakoa izateko arrazoiak zeudela. Jaurlaritzak, Espainiako Gobernuarekin adostasun politikoa lortu zuen auzietara ez eramateko. Instituzionalki, oso ondo baina horrek ez zion atea ixten inolaz ere edozein pertsona edo partidu politikoari (kasu honetan VOX izan da eraman duena), auzietara joateko. Egia da aterki juridiko sendorik gabe geratzen ari garela Administrazioan euskara normalizatzeko. Hiru puntu ezberdinei eraso egiten zaie: langileei eskatzen zaizkien hizkuntza eskakizunak, Administrazio publikoetan diharduten enpresetako hizkuntza irizpideak eta azkena hau, udalen barne funtzionamendua.

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Yo he reflexionado sobre esto y tengo el corazón por un lado y la cabeza por otro. He tomado esto con mucha pena. Personalmente no me gusta nada pero es verdad que viendo la tendencia de unos años a esta parte, era un poco previsible. Nosotros creemos que el contexto es importante. Durante la legislatura 2012-2016, Carlos Urquijo, siendo delegado del Gobierno, llevó a un buen número de ayuntamientos a litigios por funcionar en euskera. Para hacer frente a ello se consiguió sacar la Ley Municipal de 2016. Nada más entrar en vigor, la Abogada del Estado (Macarena Olona) anunció que había motivos para ser inconstitucional. El Gobierno Vasco logró un consenso político con el Gobierno de España para no llevarlo a los tribunales. Institucionalmente, muy bien, pero en ningún caso cerraba la puerta a cualquier persona o partido político (en este caso ha sido VOX quien lo ha llevado) para ir a pleito. Es cierto que nos estamos quedando sin un paraguas jurídico sólido para normalizar el euskera en la Administración. Se atacan tres puntos: los perfiles lingüísticos exigidos a los empleados, los criterios lingüísticos de las empresas que trabajan en las Administraciones públicas y el funcionamiento interno de los ayuntamientos.

Epai hauetako adibide batzuk: 2021eko maiatzean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegiak hiru udaltzainei euskara eskatzea diskriminatzailea dela esan zuen, 2022ko otsailean Gasteizeko Epaiak, 45 urte baino zaharragoak ziren funtzionarioei euskara eskatzea galarazi zuen, aurtengo urtarrilean Barakaldoko udalarekiko emandako epaia azpi-kontratazioko langileei euskaraz jakitea eskatzeagatik eta baita ere martxoan Uliazpi fundazioko 34 langileen kontratazio prozesuan 32 langileek euskaraz jakitea baita ere diskriminatzailea dela esan zuen.

Algunos ejemplos de estas sentencias: en mayo de 2021 el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco consideró discriminatorio pedir el euskera a tres policías locales, en febrero de 2022 la sentencia de Vitoria-Gasteiz impidió pedir euskera a los funcionarios mayores de 45 años, en enero de este año la sentencia dictada en relación a la exigencia de conocimiento del euskera a los trabajadores/as subcontratados/as por parte del Ayuntamiento de Barakaldo y en marzo en el proceso de contratación de los 34 trabajadores/as de la fundación Uliazpi se dijo que era discriminatorio exigir el conocimiento del euskera.

Joera hau ikusita, zoritxarrez orain atera den epaia denbora kontuan zen. Nork daki igandean zer gertatuko den. Posible da gobernu aldaketa

A la vista de esta tendencia, desgraciadamente la sentencia que ahora ha salido era cuestión de tiempo. Quién sabe lo que pasará el domingo. Es

bat egotea eta oldarraldia oraindik handiagoa izango da. Beraz, guk uste dugu lege-aldetik Madrilek erabakitzen du zer den legezkoa. Gure aburuz agian egin beharko lirateke euskara normalizatzeko ekintzak beste eremu batzuetan. Benetan inolako arazorik sortu ez dezaketen eremutan. Adibidez, udal euskaltegiak sustatu, euskaraz ikastea ordaindu. 2022ko uztailean atera zen ikus entzunezko legea, baina ez da betetzen. Lege horrek esaten du, RTVEk ateratzen dituen 12 urtetik beherako edukiak, euskara, katalana eta galegoa itzulita eman behar direla. Lege hori paper bustia da eta badugu tresna juridiko bat hori bete arazteko. “Pantailak euskaraz” eta “Administrazioan euskaraz”-ek ere askotan salatu du EITBen egoten den euskarazko gabezia serie eta pelikulen inguruan. Katalunian adibidez, urtean 600 eduki baino gehiago igotzen dira streaming plataformetara. Hemen zoritxarrez, ez gara horrelako ezertara gerturatzen. Duela pare bat egun ere irakurri nuen Google-k euskarari egiten dion diskriminazioa.

Adierazpenarekiko, gu abstenitu egingo gara.”

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Gauza asko esan dira. Gure aldetik Espainiako Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiaren inguruan salaketa irmoa. Hobeto edo okerrago, urtez urte erakunde ezberdinek emandako hizkuntza politika guztiak puskatu nahi dituzte eta oztopoak besterik ez dituzte jartzen. Gizarteak, batetik, normalizaziorako prozesuak modu naturalean hartzen duela esan dezakegu eta bestetik ditugu Auzitegiak, hizkuntza gutxituak oztopatzea helburu duten baliabideak erabiltzen dituzte eta hau izan da horietako bat. Guk gure salaketarekin irmo jarraituko dugu eta tokatzen den tokian hau salatuko dugu. Azaroaren 4an egongo den elkartze horrekin ere bat egiten dugu. Hamarkadaz hamarkada, euskararen alde lan egiten duten aurka hartzen dugu Auzitegi Konstituzionalak emandako sententzia hau.”

posible que haya un cambio de gobierno y el ataque será aún mayor. Así que nosotros creemos que desde el punto de vista legal es Madrid quien decide qué es legal. Entendemos que quizás habría que realizar acciones de normalización del euskera en otros ámbitos. En ámbitos que realmente no pueden generar ningún problema. Por ejemplo, fomentar los euskaltegis municipales, pagar por estudiar en euskera. La ley audiovisual se aprobó en julio de 2022, pero no se cumple. Esa ley dice que los contenidos de RTVE para menores de 12 años, deben ser traducidos al euskera, al catalán y al gallego. Esa ley es papel mojado y tenemos un instrumento jurídico para hacerla cumplir. "Pantallas en euskera" y "Administrazioa euskaraz" también ha denunciado en numerosas ocasiones la carencia que existe en EITB de películas y series en euskera. En Cataluña, por ejemplo, suben más de 600 contenidos al año a las plataformas de streaming. Aquí, desgraciadamente, no nos acercamos a nada de eso. Hace un par de días también leí la discriminación que Google hace al euskera.

Respecto a la declaración, nosotros nos abstendremos. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Se han dicho muchas cosas. Por nuestra parte, denunciamos firmemente la sentencia del Tribunal Constitucional español. Mejor o peor, año tras año han querido romper todas las políticas lingüísticas dictadas por las diferentes instituciones y sólo ponen trabas. Por un lado, podemos decir que la sociedad adopta de forma natural el proceso de normalización, y por otro lado tenemos a los Tribunales, que utilizan recursos para obstaculizar las lenguas minorizadas y este ha sido uno de ellos. Nosotros seguiremos firmes con nuestra denuncia y lo denunciaremos allá donde toque. También nos sumamos a la concentración que se celebrará el 4 de noviembre. La sentencia del Tribunal Constitucional se pronuncia en contra de quienes trabajan a favor del euskera durante décadas. "

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Oso adierazgarria da zein jendeak bultzatuta iritsi garen epai honetara (Urquijo, Macarena Olona, VOX). Herritar guztiek dute eskubidea gazteleraz ere jasotzeko eskubidea, UEMAko udalerrietan ere bai. Ez dago udalik informazioa erdaraz eskatuta ematen ez denik. Hizkuntza gutxituen behar dute borroka alde guztietan, kalean, telebistan, udaletan, erakundeetan. Gutxitu hitzak dena esaten du. Gure ustetan oso salagarria da oldarraldi hau eta erabat babesten dugu kontseiluak egindako adierazpena. Azpimarratu eta garrantzia eman nahi diogu azaroaren 4ko mobilizazioari, oldarraldi horri erantzun masiboa emateko aukera delako. Guk uste dugu euskarak, hori eta gehiago ere behar duela.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaigo EH Bildu): "Es muy significativo ver qué personas nos han llevado a esta sentencia (Urquijo, Macarena Olona, VOX). Todos los ciudadanos tienen derecho a recibir la información también en castellano, incluso en los municipios de UEMA. No hay ayuntamiento que no dé la información solicitada en castellano. Las lenguas minorizadas necesitan de la lucha en todas partes, en la calle, en la televisión, en los ayuntamientos, en las instituciones. La palabra minorizada lo dice todo. Consideramos muy denunciable este ataque y apoyamos plenamente la declaración de Kontseilua. Queremos subrayar y dar importancia a la movilización del 4 de noviembre, porque es una oportunidad para dar una respuesta masiva a ese ataque. Nosotros creemos que el euskera necesita eso y más. "

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nuestro voto no es por apoyar a las personas a las que se ha hecho mención. Hemos dado nuestras razones. Cuando se aprobó la Ley pusimos en duda la constitucionalidad de la misma. Aquí se está hablando de cumplir la Constitución. Somos partidos constitucionalistas y estamos en un Estado de Derecho. La Sentencia de lo que está hablando es de la inconstitucionalidad del art. 6,2 sobre el uso exclusivo del euskara en la documentación interna de la entidad local. Yo creo que las administraciones lo harán de una manera u otra. Esta Administración ha respetado bastante el uso de ambas lenguas cooficiales. Vosotros habéis hablado de que recibisteis un informe técnico en castellano. Nosotros lo recibimos, casi siempre, todo en euskara, pero no por ello hemos puesto el grito en el cielo.”

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Hasierrek esan duen harira, herritarrek bi hizkuntzetan jarduteko eskubidea bermatuta dago. Txostenak euskaraz bakarrik ez. Beste gauza bat da euskarari lehentasuna eman nahi diola udal honek eta lehenengo hizkuntza beharbada, euskara da. Hala ere bide horretan, lehen ikusi den bezala, badugu zer egiteko eta aurrera pausoak emateko. Baina herritarren eskubideak bermatuta daude. Administrazioarekin erlazioa, beraiek nahi duten hizkuntzan izango da. Askotan pasatzen da nire hizkuntza eskubidea urratzen dela bestearenak hartzen badu bere bidea. Beharbada norbaitekin tratatzeko erdaraz hitz egin behar dut. Hortaz, nire hizkuntza eskubidea, hor urratzen da.”

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Al hilo de lo que ha dicho Hasier, está garantizado el derecho de los ciudadanos a actuar en ambas lenguas. Los informes no están sólo en euskera. Otra cosa es que este ayuntamiento quiera dar prioridad al euskera, y quizás la primera lengua sea el euskera. Sin embargo, en ese camino, como se ha visto antes, tenemos mucho por hacer para avanzar. Pero los derechos de los ciudadanos están garantizados. La relación con la Administración será en el idioma que deseen. Muchas veces pasa que se vulnera mi derecho lingüístico si se respetan los de otros. A lo mejor para tratar con alguien tengo que hablar en castellano. Por lo tanto, mi derecho lingüístico, ahí se vulnera. "

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Osakidetzara joaten garenean eta medikuak euskara ez dakienean?. Berdin ertzain batenarengana zuzentzen garenean edo administrazioetako langileren batenarengana eta tamalez, ez euskara ez dakitenean, non

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "¿Cuando vamos a Osakidetza y el médico no sabe euskera?. Lo mismo cuando nos dirigimos a un/a ertzaina que a un empleado/a de las administraciones y lamentablemente no saben euskera, ¿dónde quedan los derechos

geratzen dira hizkuntza eskubideak?. Nork bermatzen ditu hizkuntza eskubide horiek?. Konstituzionalak?."

lingüísticos?. ¿Quién garantiza esos derechos lingüísticos Constitucionales?. "

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Nik esan nahi nuena zen, zorionez uste dugula epai honek ez dituela herritarren hizkuntza eskubideak urratzen zeren eta azken finean udalen dokumentazioari buruzko da eta ez, harremanei buruzkoa. Egia da beste batzuekin (ertzaina, Osakidetza,…) euskaraz hitz egin ahal izateko arazoak daudela. Legeak aurrera ateratzen ditugunean, euskarak merezi du, gure aldetik, ahalik eta indar gehiena egitea eta a ahalik eta zailena jartzea auzitegiei horrelako legeak atzera botatzeko. Kasu honetan, juridikoki arazoa da artikulu horrek esaten duela *"…baldin eta behar bezala alegatzen bada*". Pertsona batek euskaraz ez dakiela alegatu beharra, juridikoki absurdoa da. Normalean, pertsona batek alegatzen du zer edo zer dakiela. Ez, ez dakiela. Horrek zoritxarrez eman dio sarbidea Auzitegi Konstituzionalari eman duen epaia emateko. Pentsatzen du jende asko ibili zela Legea hau lantzen, baina dena pikuetara joaten da, hein batean, teknizismo batengatik. Beste gauza da oldarraldi hau, baina beti dinamika baten helmugan egon den ondorioa da. Ez da ezer berria. 20 urte euskararen Legea atera zenetik eta daramatzagu 40 urte beti borrokan eta ziur aski beste urte pila bat horrela jarraituko dugu."

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Lo que yo quería decir era que, afortunadamente, creemos que esta sentencia no vulnera los derechos lingüísticos de los ciudadanos porque al fin y al cabo es sobre la documentación de los ayuntamientos y no sobre las relaciones. Es cierto que en otros casos hay problemas para poder hablar en euskera (ertzaina, Osakidetza,...). Cuando sacamos adelante las leyes, el euskera merece, por nuestra parte, hacer el mayor esfuerzo posible y poner lo más difícil posible a los tribunales para revocar este tipo de leyes. En este caso, el problema jurídicamente es que ese artículo dice "... siempre que se alegue válidamente". La necesidad de alegar que una persona no sabe euskera es jurídicamente absurda. Normalmente, una persona alega saber algo. No, que no lo sabe. Esto ha dado pie desgraciadamente al Tribunal Constitucional para dictar la sentencia que ha dictado. Pensamos que hubo mucha gente elaborando esta Ley, pero todo se va a la porra, en parte, por un tecnicismo. Otra cosa es este ataque, pero es una consecuencia que siempre ha estado en la meta de una dinámica. No es nada nuevo. 20 años desde que salió la Ley del Euskera y llevamos 40 años luchando siempre y seguramente seguiremos así otro montón de años. "

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Pixka bat kezkatzen dit euskararen oldarraldi hau zerbait teknikoa edo juridikoa dela planteatzea. Niretzat zerbait politikoa da erabat. Mila eraso egon dira, EGUNKARIArena argiena. Planteatzea zerbait teknikoa eta juridikoa dela, nire ustetan ez da zuzena. Hori izango da eraso horretan beste pauso bat, baina hemen arazo politikoa dago".

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Me preocupa un poco plantear este ataque al euskera como algo técnico o jurídico. Para mí es algo estrictamente político. Ha habido mil ataques, el más claro el de EGUNKARIA. Yo creo que no es correcto plantearlo como algo técnico y jurídico. Ese será otro paso en ese ataque, pero aquí hay un problema político ".

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Tras debatir el asunto suficientemente se ha realizado la votación obteniéndose el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 14 (EAJ-PNV, BEASAINGO EH BILDU)
Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Votos a favor: 14 (EAJ-PNV, BEASAINGO EH BILDU)
Votos en contra: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da erakunde-adierazpena.

**5.- BERRI EMATEA**:

Ezagutzera eman dira ondorengo Ebazpenak.

- 2023-05-15etik 2023-07-16ra bitarte emandako Ebazpenak.
- 2023-05-15etik 2023-07-16ra bitarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

**6.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

OSAKIDETZA

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Bozeramaile taldean ere komentatu genuen, azkenaldian Osakidetzan gertatzen ari dena. Medikuak erretiratzen ari dira eta jendea falta da eta herri txikietan (Itsasondo, Ataun), jendea kezkatuta dago. Beasainen ere badugu arazoa. Gutxienez bi mediku jubilatu dira eta ez dira ordezkatu. Udal honen eskumena ez da, baina bai, herritarrek jasotzen duten ondorioa. Hori dela eta uste dut udal honi dagokiola galdetzea eta eman beharreko pausoak ematea."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bozeramaile taldean esan bezala, bi mediku jubilatu dira eta beraien pazienteen kartera besteen artean banatu da. Harreman zuzena badugu hemengo ordezkaritzarekin eta dituztenen aurreikuspen inguruan hurrengo bozeramaile taldean komentatuko ditugu."

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

Abstenciones: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

En consecuencia, se aprueba la declaración institucional por la mayoría absoluta.

**10.- DACION DE CUENTA**:

Se da cuenta de las siguientes Resoluciones:

- Resoluciones dictadas desde el 15-05-2023 hasta el 16-07-2023.
- Resoluciones en relación a contratos menores dictadas desde el 15-05-2023 hasta el 16-07-2023.

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

En el apartado de ruegos y preguntas se exponen las siguientes:

OSAKIDETZA

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "También comentamos en la Junta de Portavoces lo que últimamente está sucediendo en Osakidetza. Los médicos se están jubilando y falta gente y en los pueblos pequeños (Itsasondo, Ataun), la gente está preocupada. En Beasain también tenemos el problema. Al menos dos médicos se han jubilado y no han sido sustituidos. No es competencia de este Ayuntamiento, pero sí las consecuencias que sufre la ciudadanía. Por ello, creo que corresponde a este Ayuntamiento preguntar y dar los pasos necesarios. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Como hemos dicho en la Junta de Portavoces, se han jubilado dos médicos y la cartera de sus pacientes se ha repartido entre los demás. Tenemos contacto directo con la delegación de aquí y en la próxima Junta de Portavoces comentaremos las previsiones que tienen. "

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las dieciocho horas y treinta minutos, de lo cual como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.